

Zuei



ANA MENDIA
EMAGINA

Kaixo. Ana naiz. Ez dugu elkar eza-gutzen. Tira, akaso bai. Akaso zuetakoren batekin topo egin dut azkenaldian. Nolanahi ere, horrek ez du axola. Eskerrak emateko idazten ari natzaizue.

Puerperio: erditze unetik ugal-organoak, horien funtzioak eta emakumearen egoera erdi baino lehenagoko jatorrizko egoerara itzuli bitartera doan aldia.

Definizio sinplea. Motza. Argia. Aseptikoa.

Eskerrak liburuetan irakurri ezin dena zuek narratzen duzuen. Zuei galdetuta ulertu dut zenbateraino den ezinezkoa atzera-buelta. Zuek entzunda ikasi dut erditu osteko aldiaren iraupena diadak baino ezin duela zehaztu. Zuekin hitz eginda ohartu naiz puerperioa korapilatsua dela.

Konplexua. Luzea. Lausoa. Errailetakoa.

Puerperioa nolabaiteko eraldatzea da. Erdibitzea. Bat egitea. Esfera emozionala betiko konpartitzea. Bat-batean dena da hezur-haragizkoa. Umea jaio-tzen da; baita ama ere. Eta, gertatu denaz

Puerperioa nolabaiteko
eraldatzea da. Erdibitzea.

Bat egitea.

Esfera emozionala
betiko konpartitzea.

Bat-batean dena da
hezur-haragizkoa.

Umea jaio-tzen da;
baita ama ere

kontziente izateko ia astirik gabe, derrepentean, galaxia ezezaguna oinazpitan. Estralurtar bat gehiago Lur planetan. Hobeto esanda: lurtar bat gehiago estralurtarren planetan.

Prozesua aberasgarria dela diozue. Latza, halere. Latza, nahasgarria, mingarria eta neketsua. Nolabaiteko dolua. Egia da tarteka baten bati egokitzen zaiola iragarkietako erditze-oste erromantiko horietakoren bat. Baina, gehien-gehienetan, puerperioak ez du kafe egin berriaren usainik.

Zaila omen da aurretik zer den hitzez azaltzea. Ezin omen da imajinatu. Ez dakit, ba, egunen batean biziko ote dudan. Lasai nago, dena den; ze badakit zuetakoren bat izango dudala alboan. Egongo da baten bat ni sostengatzen aholku kontraesankorren gaindosiak jota, gauero hil eta goizero berriz jaiotzen naizenean; edo konpreni ezin diren negar saioen ostean pozez zorutzen naizenean. Beti dago zuetakoren bat. Gutakoren bat.

Mila esker, beraz. Mila esker zuri: puerperio esaten dioten eromen zentzudun horretan barru-barruraino sartu zaren horri. Mila esker emagin-eskole-tan ikasitakotik harago dagoena niganaino ekartzeagatik. Mila esker puerperioa ezer egin ez eta aldi berean dena egitea dela irakasteagatik. Zoragarria da ispi-luaren bestaldean dagoenari beldurrik gabe begiratzen diozula ikustea. Haurra-ekin batera jaio berri zara. Eta polita da sortu berri den Ama zaintzen eta maitatzen duzula sentitzea. Lasaigarria da zu protestan entzutea. Patriarkatuak ez dizu erraza jarri. Begira, ordea. Hortxe zaude. Zure barruak agintzen dizun hori egiten: desobeditzen. ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com